

ARLOAREN EDO EREMUAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Ikastetxea:	Murgia BHI	Kodea:	010157	Ikasturtea:	2025-2026
Etapia:	DBH	Maila:	4. maila		
Arloa:	Heziketa fisikoa	Irakasleak:	Peio Larrakoetxea Etxeguren		

Programazio didaktikoaren justifikazioa (*sarrera*)

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxearen proiektuak, urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Honako ikasgai honetan, ikasleak dituzten behar motorretatik abiatuta, hauen garapen integralean eragitea izango da helburua. Honetarako, ikasgai hau bereizten duen konpromezu motorra kontuan izanda, egiten diren jarduerak praktikoak eta parte hartzaileak izango dira. Honekin gaitasun fisikoetan eragiteaz aparte, ikasleek haien arteko harremanak hobetzea eta inguruarekin duten erlazioa hobetzea bilatuko da. Bertan ematen diren praktikan haien emozio eta sentimenduak adierazteko aukera emanaz eta hauek kudeatzeko estrategiak ezagutzuz.

Ikas taldeei dagokienez, maila honetan etorri berriak dira ikastetxera. Lehen Hezkuntzako etapetatik datoz hona, inguruko ikastetxe eta herri ezberdinetatik. Hori dela eta, beren lehen esperientzia da testuinguru "handi" batean, ordurarte eskola txiki ezberdinetan baitaude sakabanatuak. Gainera, asko inguruko herrietakoak dira, askorentzat berria izanik ikastetxe edota Murgia herriaren testuingurua. Hori dela eta, ikasleen arteko elkar ezagutza ez da oso handia lehen etapa honetan, Heziketa fisikoak honetarako aukera paregabea eskainiz. Berdina gertatzen da eskola ingurunearekin, Heziketa Fisikoko jarduerak ikastetxea eta bere ingurunea ezagutzeko bidea izan beharra daukate Bigarren Hezkuntzako lehen etapa honetan.

Ikaslearen ezaugarri sozioekonomikoei erreparatzen badiegu, gehienak maila sozioekonomiko ertain-altuan koka ditzakegu. Gehiengo gertuko eskoletan eskolarizatuak izan da lehen etapetatik, ondorengo urteetan gehitu den ikasle atzerritar edota eskola alternatibo batzuetatik datozen ikasle batzuk ere bertan diren arren. Ikastalde hauek txikiak dira. Zehazki honela banatzen dira gela bakoitzean:

- 4A gela: 15 ikasle.
- 4B gela: 15 ikasle.
- 4D gela: 10 ikasle.

Bertan aurki dezakegun aniztasuna handia da. Talde hauetan behar bereziak dauden ikasle ugari daude (dislexia, adimen murriztasuna, arazo psikologikoak...).

Hala ere, ikasle hauei dagokienez, arlo motorrean ez dute inongo zailtasunik aurkezten. Beste arlo batzuetan egokitzapenak izan ditzaketen arren. Komentatzekoa da ikasle bat daukagula bere jarrera arazoengatik heziktailearen laguntza jasotzen duela.

Jarduerak gauzatzeko, ikastetxeak eskaintzen dituen egiturei erreparatzen badiegu, honakoak askotan mugatzaileak izango dira jarduera batzuk aurrera eramanez izateko. Ikastetxean bertan, erabilgarria den gimnasio bat dago, baina honakoaren erdian hainbat poste aurkitzen ditugu, ikasle askoren joan etorria ugaria da bertatik eta askotan ez dago honakoa erabilgarri beste ikasgai batekin solapatu daitekeelako. Ikastetxe kanpoan dagoen espazioa ugaria den arren, askotan bertako instalakuntzak okupatuak egoten dira jardueren praktikorako, izan ere, ikastetxean bertan Lanbide Heziketako beste ikastetxe bat aurkitzen da eta hauek instalakuntzak erabiltzen dituzte, askotan jarduerak bertan aurrera eramatea oztopatuz edota ezinezko eginez. Gainera, bertan aurkitzen den futbol zelaia oso egoera txarrean dago jarduerak burutu ahal izateko. Honetaz gain, erabili daitezkeen instalakuntzak herriko kiroldegikoak dira (palatuko instalakuntzak), baina bertara joateko dagoen bide luzeak, saioen iraupena asko mugatuko du.

Azkenik, ikastetxea proiektu ezberdinetan murgildua dagoen arren, ikasgai honi eraginog dion bakarra HEDATZE proiektua izango da. Honako hau ikastetxeko errekreo orduetan eramango da aurrera. Bertan kirol ezberdinen inguruko txapelketak eramango dira aurrera, honen helburua Gorputz Hezkuntzako saioetan aurrera eramanez diren kirol ezberdinen ezagutza eta praktika indartzea izango da. Era berean, ikasleek ikastetxean egiten dituzten orduetan jarduera fisikoaren praktika areagotzea eta aisialdi aktiboago bat sustatzea bilatuko da.

IKASLEEN IRTEERA PROFILA	
FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	DESKRIPTORE OPERATIBOAK (lantzen direnak soilik)
1. Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia (HKK)	<p>HKK1. Euskaraz eta gaztelaniaz ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglez bidez hitz egiten du, koherentziaz, zuzentasunez eta gizarte-testuinguruekiko egokitasunez, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzan eta errespetuz, informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai eta lotura pertsonalak eraikitzeko ere.</p> <p>HKK2. Pertsona-, gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritikoz, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.</p>

	<p>HKK3. Hainbat iturritatik datorren informazioa, euskaraz eta gaztelaniaz, gero eta modu autonomoagoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, irakurketa-helburuen arabera, eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz; informazioa integratu eta ezagutza bihurtzen du, komunikatzeko, ikuspegi sortzaile, kritiko eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.</p> <p>HKK4. Autonomiaz irakurtzen ditu bere adinerako egokiak diren hainbat lan euskaraz eta gaztelaniaz, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa esperientzia indibidual eta kolektiboaren bide pribilegiatuz hartzen du; eta bere esperientzia biografikoa eta ezagutza literario eta kulturalak mugiarazten ditu, obren interpretazioa eraikitze eta partekatze eta gero eta konplexuagoak diren asmo literarioko testuak sortzeko.</p> <p>HKK5. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazkak elkarriketaren bidez konpontzearen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak baztertuz, bai eta hizkuntzaren bidezko botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa ere bultzatzeko eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera asertiboa izateko.</p>
<p>2. Konpetentzia Eleaniztuna (KE)</p>	<p>KE1: Hizkuntza bat edo gehiago modu eraginkorrean erabiltzen ditu, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez gain, bere komunikazio-premiei behar bezala eta egoki erantzuteko, bai bere garapen eta interesei dagokienez, bai eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguruei dagokienez.</p> <p>KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, bere ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzen du, eta beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan eskuratutako ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko estrategiak erabiltzen ditu, eta konfiantzazko jarrera erakusten du komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ikasteko duen konpetentzian.</p> <p>KE3. Ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna onartzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrera erakusten du, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat, kultura- ondareztat eta gizarte-kohesioa sustatzeko tresnatzat hartzen ditu.</p>
<p>3. Matematika rako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingenieritzarako Konpetentzia (STEM)</p>	<p>STEM1: Arrazoiketa matematikoaren berezko metodo induktibo, deduktibo eta logiko batzuk erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko-deduktiboa ere egoera ezagunetan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako soluzioak eta prozesua kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero.</p> <p>STEM2: Pentsamendu zientifiko erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema natural eta materialei buruzko prozesu eta gertaera batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ezagutzan konfiantza bereganatuz garapenaren motor gisa, galderak planteatuz, eta hipotesiak egiaztatuz esperientziazkoaren eta ikerketaren bidez, tresna eta tresna egokiak erabiliz, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia balioetsiz, eta eredu zientifikoarekiko ondorio esanguratsu eta koherenteren bat lortuz, zientziaren irismenari eta mugei buruzko jarrera kritikoa erakutsiz.</p> <p>STEM3: Proiektuak planteatzen eta garatzen ditu, eta, horretarako, hainbat prototipo edo eredu diseinatu, fabrikatu eta ebaluatzen ditu, premia edo arazo bati modu sortzailean eta kooperatiboan irtenbidea emango dioten produktuak sortzeko eta/edo erabiltzeko, talde osoaren parte-hartzea saiatuz, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz eta iraunkortasunaren garrantzia baloratuz.</p>

	<p>STEM4: Prozesu, arrazoiketa, erakustaldi, metodo eta emaitza zientifiko, matematiko eta teknologikoen elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak...) eta kultura digitala modu kritikoan aprobetxatzen du, hizkuntza matematiko-formala barne, etika eta erantzukizunez, ezagutza berriak partekatze eta eraikitze.</p> <p>STEM5: Osasun fisikoa eta mentala eta ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzei ekiten die, eta etika eta segurtasunprintzipioak aplikatzen ditu ingurune hurbila modu jasangarrian eraldatzeko proiektuak egitean, haren eragin globala baloratuz eta kontsumo arduratsua praktikatur.</p> <p>STEM6: Modu kritikoan justifikatzen du ikerketa zientifikoaren beharra eta horren aplikazioak eta aurrerapen zientifiko-teknologikoak gizartearen ongizatean, hainbat egoera problematikoren aurrean erabaki arrazoituak hartzeko gizarte modernoaren garapenean izan duten zeregina ezagututa.</p>
<p>5. Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII)</p>	<p>KPSII1. Bere emozioak erregulatzen eta adierazten ditu, eta, horretarako, baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikasteko asmoa eta motibazioa bilatzen ditu, edozein testuingurutan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu konstruktiboan kudeatuz eta bere helburuekin harmonizatuz.</p> <p>KPSII2. Faktore sozialekin lotutako osasunerako arriskuak ezagutzen ditu, maila fisikoan eta mentalean bizi-ohitura osasungarriak finkatzeko, eta ikaskuntza sustatzen eta oztopatzen duten baldintza pertsonalak eta inguruneak identifikatzen ditu.</p> <p>KPSII3. Besteen ikuspegiak eta esperientziak modu proaktiboan ulertzen ditu, eta ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, zereginak eta erantzukizunak modu ekitatiboan banatuz eta onartuz eta estrategia kooperatiboak erabiliz.</p> <p>KPSII4. Bere ikaskuntza-prozesuari buruzko autoebaluazioak egiten ditu, informazioa baliozkotzeko, sostengatzeko eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak ateratzeko iturri fidagarriak bilatuz.</p> <p>KPSII5. Epe ertainerako helburuak planifikatzen ditu eta atzeraelikadurako prozesu meta-kognitiboak garatzen ditu, ezagutza eraikitze prozesuan dituen akatsetatik ikasteko.</p>
<p>6. Herritartasun erako Konpetentzia (HK)</p>	<p>HK1: Bere nortasunaren dimentsio sozialari eta herritarrari buruzko ideiak aztertzen eta ulertzen ditu, bai eta identitatea zehazten duten gertaera sozial, historiko eta arauemaileei buruzkoak ere, eta arauak, enpatia, ekitatea eta espiritu konstruktiboa errespetatzen ditu besteekiko elkarreraginean, hainbat testuinguru sozioinstituzionalean.</p> <p>HK2. Europako integrazio-prozesutik, Euskal Autonomia Estatututik eta giza eta haurren eskubideetatik datozen printzipioak eta balioak aztertzen eta onartzen ditu, eta, horretarako, Erkidegoko jardueretan parte hartzen du, hala nola erabakiak hartzean edo gatazkak konpontzean, jarrera demokratikoarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta genero-berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, garapen iraunkorarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromisoarekin.</p>

	<p>HK3. Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etikoak ulertzen eta aztertzen ditu, norberaren eta besteen balioak kritikoki kontuan hartuz, eta bere iritzia garatuz, eztabaida moralari aurre egiteko elkarrizketarako, argudiatzeko, errespetuzko eta edozein diskriminazio edo indarkeriaren aurkako jarreraz.</p> <p>HK4. Jarduera lokal eta globalen arteko interdependentzia, ekodependentzia eta interkonexioko harreman sistemikoak barne hartzen ditu, eta modu kontzientean eta motibatuan hartzen du bizimodu iraunkorra eta ekosozialki arduratsua.</p>
<p>7. Ekintzaitza Konpetentzia (EK)</p>	<p>EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu, eta erronkei zentzu kritikoarekin aurre egiten die, iraunkortasunaren balantzea eginez, ingurunean izan dezaketen eragina baloratuz, ideia eta irtenbide berritzaileak, etikoak eta iraunkorrak aurkezteko, eremu pertsonalean, sozialean, kulturean eta ekonomikoan balioa sortzera bideratuta.</p> <p>EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak ebaluatzen ditu, autoezagutzako eta autoeraginkortasuneko estrategiak erabiliz, eta ekonomiaren eta finantzen funtsezko elementuak ulertzen ditu, ekonomia- eta finantza-ezagutzak aplikatzen dizkie jarduera eta egoera zehatzei, eta lankidetzaren eta talde-lana erraztuko duten trebetasunak erabiltzen ditu, ekintzara esperientzia ekintzaile baliotsua eramango duten beharrezko baliabideak biltzeko eta optimizatzen.</p> <p>EK3. Ideia eta konponbide baliotsuak sortzeko prozesua garatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, modu arrazoituan, planifikatzeko eta kudeatzeko estrategia arinak erabiliz. Egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, prototipo berritzaileak eta baliozkoak sortzeko prozesua burutzeko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta</p>
<p>8. Kontzientzia eta adierazpide kulturalerak o Konpetentzia (KAKK)</p>	<p>KAKK1. Edozein garaitako ondare kultural eta artistikoaren funtsezko alderdiak ezagutu, kritikoki estimatu, errespetatu eta sustatzen ditu, eta bere nortasuna eraikitzeko kultura- eta arte-aniztasunari datxekion adierazpen-askatasuna eta aberastea baloratzen ditu.</p> <p>KAKK2. Gozatu, ezagutu eta aztertu autonomiaz ondareko adierazpen artistiko eta kultural nabarmenenen berezitasunak eta intenzionalitateak, haien hizkuntza eta elementu teknikoaren bidez, edozein bitarteko edo euskarritan.</p> <p>KAKK3. Ideiak, iritzia, sentimenduak eta emozioak sormenez eta modu irekian adierazten ditu. Autoestimua, sormena eta pertenezkoak garatzen ditu, adierazpen kultural eta artistikoaren bidez, enpatiaz eta lankidetzazko jarreraz.</p> <p>KAKK4. Interpretazioaren, exekuzioaren, inprobisazioaren eta konposizio musikalaren bidez produktu artistikoak eta kulturalak sortzeko oinarriko baliabide/euskarri plastikoak, ikus-entzunezkoak, soinuak eta gorputzezkoak ezagutzen, hautatzen eta sormenez erabiltzen ditu. Eskaintzen dizkioten garapen pertsonal, sozial eta ekonomikorako aukerak identifikatzen ditu.</p>

KONP. ESPEZ. PISUA (%)	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	DESKRIPTORE OPERATIBOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	EBALUAZIO ERREMINTAK ETA ERAGILEAK
%31,8	1. Jarduera fisikoak osasunean, oro har, dituen efektuak ebaluatzea, oinarri zientifikorik gabeko praktikak baztertuz, gorputz-eredu estereotipatuekin kritikoa izanez eta autorregulazio emozionaleko prozesuak eta gatazkak kudeatzeko prozesuak garatuz, bizimodu aktiboa eta osasungarria hartzeko.	HKK3, HKK5, KE1, STEM2, STEM5, KPSII2, KPSII4, HK4.	<p>1.1 Osasunaren kontzeptu integralera eta bizimodu aktibora zuzendutako jarduera fisikoko sekuentzia errazak ezartzea eta antolatzea, hasierako mailaren baloraziotik abiatuta eta norberarengorputz-errealitatea eta -nortasuna errespetatuz.</p> <p>1.2 Ohitura osasungarriak gero eta autonomia eta erantzukizun handiagoz hartzea, baita lesioen prebentziorako neurri orokorrak ere, arrisku-egoerak antzematen ikasiz.</p> <p>1.3 Jarduera fisikoaren ondoriozko istripuetan, protokoloen arabera esku hartzea, lehen laguntzako oinarrizko neurriak aplikatuz.</p> <p>1.4 Zenbait praktikak eta portaerak gure osasunean eta bizikidetzan duten eragina aztertzea eta baloratzea, horien eragina baloratzuz eta berriro gerta daitezkeen modu aktiboan saihestuz.</p> <p>1.5 Baliabide eta aplikazio digitalak maneiatzea, haien potentziala ezagutuz eta jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan erabiltzeko arriskuak ezagutuz.</p> <p>1.6 Gizarte-trebetasunak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, baita gatazken kudeaketan elkarrizketa eta aniztasunarekiko errespetua ere, jarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa erakutsiz estereotipoen, jarduera diskriminatzaileen eta orotariko indarkeriaren aurrean.</p> <p>1.7 Emozioak kudeatzea, eraginkortasunez parte hartzeko gai izanik, gainerakoen esku-hartzeak errespetatuz, eta kirol-legez jokatzuz ikuslearen, parte-hartzailearen edo beste batzuen rola betetzean.</p>	<p>ERAGILEAK: Autoebaluazioa, koebaluazioa, heteroebaluazioa)</p> <p>ERREMINTAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● kontrol-zerrenda. ● errubrika. ● balorazio eskala. ● ebaluazio diana ● Portfolioa ● etab.
%13,6	2. Ziurtasunik gabeko inguruneetako egoera psikomotorretan jardutea, gero eta autonomia handiagoz eta, erronka fisikoei aurre egitean, hobetze- eta erresilientzia-jarreraz, betiere		<p>2.1 Egoera psikomotorrak ebaztea, gorputzaren kontrol-eta menderatze-maila jakin batez eta motrizitatearen osagai kualitatiboak eta kuantitatiboak gero eta autonomia handiagoz eta sormenez erabiliz.</p> <p>2.2 Estrategiaren oinarrizko nozioak bereganatzea, akzio-hipotesiak formulatuz, barne-logikaren interpretaziotik abiatuta, eta kateamendu motorrak automatizatuz.</p>	

	<p>autonomia eta hazkunde harmonikoa garatzeko ikuspuntu organikotik, kognitibotik, afektibotik eta sozialetik.</p>		<p>2.3 Nork bere ahalmen motorra ezagutzea eta jolas-jardueren bidez nork berak erregulatzea, gaitasun fisikoak hobetzen lagunduz, eta ezagutza eta balioak beren bizi-eremura eramanez.</p>	
<p>%4,5</p>	<p>3. Ziurtasunik gabeko inguruneetako aurkaritza-egoera soziomotorren eskakizunetara egokitzea, kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaeren aurrean jarrera kritikoa hartuz, erronkara egokitutako jokabideak doitzeko eta kultura motorraren lorpenean eta sorreran laguntzeko.</p>		<p>3.1 Aurkaritza-testuinguruetan elkarreraginean aritzea, akzio-printzipioak aplikatuz eta kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaerenaurrean jarrera kritikoa azalduz.</p>	
			<p>3.2 Oinarrizko akzio-planak prestatzea, egoeren barne-logika eta parte-hartzaileen gabeziak eta indarguneak aztertuz eta, beharrezkoa izanez gero, plana berregokituz.</p>	
			<p>3.3 Norberaren kulturaren errotutako aurkaritzako kirol-jokoetan modu aktiboan parte hartzea, baita askotariko kulturetatik datozen beste batzuetan ere, jatorri desberdineko pertsonen artean elkarreragin eraikitzaileak sortzeko espazio gisa duten balioa eta potentziala ezagutuz eta transmitituz.</p>	
<p>%13,6</p>	<p>4. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako kooperazio-egoera soziomotorretan moldatzea, autorregulazio-prozesuak jarrera enpatikoz garatuz —desberdintasun kulturalak, sozialak, generokoak eta trebetasunekoak edozein izanik ere—, parte hartzen den guneetako gizartebizikidetzan, gizarteratzean eta</p>		<p>4.1 Proiektu motor kooperatiboak ebatzea, helburu komunak bilatuz, arau-itunak eginez, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako estrategiak barne hartuz —prozesuarenak zein emaitzarenak—, eta esleitutako rolak eta horien erantzukizunak bere gain hartuz.</p>	
			<p>4.2 Bizikidetzaren sozialean eta gizarteratze-prozesuan laguntzea, portaera etikoaren eta jarrera enpatikoaren bidez, etajarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa erakutsiz estereotipoen, jardun diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean.</p>	

%22,7	<p>konpromiso etikoan laguntzeko.</p>			
	<p>5. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako aurkaritza-/kolaborazio-egoera soziomotorretan elkarreraginean aritzea, akzio-arauak eta -printzipioak aplikatuz eta aditze sozialean lagunduz, informazio-eskaera handia duten egoeretan jokabide motorra doitzeko eta kultura motorra lortzen eta sortzen laguntzeko.</p>		<p>5.1 Aurkaritza-/kolaborazio-egoeretan elkarreraginean aritzea, akzio-printzipioak aplikatuz, erantzunak automatizatuz eta kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako jarreraren aurrean jarrera kritikoa azalduz.</p> <p>5.2 Kirol-jokoetan modu aktiboan parte hartzea, kultura motorraren lorpenean eta sorreran lagunduz, kultura horren jatorria, bilakaera eta gizarte garaikideetan duen eragina aztertuz, eta jatorri desberdineko pertsonen arteaneraikuntza-elkarreraginak sortzen dituen espazilogisa baloratu.</p> <p>5.3 Motrizitatearen testuinguru batzuetan oraindik ere gertatzen diren genero-estereotipoak eta portaera sexistak identifikatzea eta aztertzea, haiek mantentzen laguntzen duten faktoreak ezagutzuz.</p>	
%9	<p>6. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorretan akzio-aukera aurkitzea eta behar bezala eta segurtasunez aprobetxatzea, ikasleen ohituretan natura- eta hiri-ingurunean garatuko den aisia osasuntsu, jasangarri eta maila ekosozialean arduratsua sartzeko.</p>		<p>6.1 Ziurgabetasuna duen ingurune batean egoera motorrak ebaztea, kirol-jardueren eta jarduera fisikoen oinarritzekoak eta taktikoak aplikatuz.</p> <p>6.2 Ingurune naturaletan (lurrekoak edo uretakoak) egiten diren kirol-jardueretan parte hartzea, inguruneaz modu jasangarriangozatzuz, jarduera horiek sor dezaketen ingurumen-inpaktua minimizatuz eta haien aztarna ekologikoaz jabetuz.</p> <p>6.3 Natura-eta hiri-ingurunean jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak praktikatzea,segurtasun-arauindibidualak eta kolektiboak aplikatuz.</p>	
%4,5	<p>7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna gisa erabiltzea, emozioak kudeatuz eta kultura motorraren adierazpen</p>		<p>7.1 Gorputza nahita eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, adierazpen-eta komunikazio-tresna gisa, zenbait adierazpen-tekniken bidez, eta musika-oinarria duten eta ez duten konposizio indibidualen edo kolektiboen sorreran eta errepresentazioan modu aktiboan parte hartuz.</p>	

	guztiak aztertuz, haien eragina eta kulturari egiten dizkioten ekarpen estetikoak eta sormenezkoak baloratzeko eta akzio-aukerak eta adierazpen-baliabideak jardun motorren artean integratzeko.	7.2 Norberaren kulturarekin eta beste kultura batzuekin lotzen diren adierazpen artistikoetan eta espresiboetan parte hartzea, haien kontserbazioa erraztuz eta kultura-nortasunaren sorreran duten garrantzia baloratzuz.	
		7.3 Emozioak kudeatzea, arte-eta adierazpen-egoeretan desinhibituta parte hartzeko gai izanik, eta gainerakoen esku-hartzeak errespetatuz.	

EBALUAZIO OROKORRA:

Gorputz Hezkuntzaren ebaluazioak etengabea, hezigarria eta partekatua izan beharko du, eta ikasleen parte hartzearen bidez (autoebaluazio, koebaluazio...etab.) haien ikaskuntza hobetzera bideratuta egongo da. Ebaluatuko diren alderdi ezberdinak honakoak izango dira:

- **Eguneroko lana/jarrera:** Irakaslearen behaketa taula/koadernoak, ikaslearen parte hartzea, saiakera, errendimendua, harremanak, arreta, material zainketa, errespetua... Baloratzeko.
- **Proba praktikoak:** Ikas egoeretan lortu diren konpetentziak baloratzeko azterketa/proba/lan motrizak.
- **Proba teorikoak:** Lan/azterketa/galdetegi teorikoak/azken produktuak.
- **Higiene ohiturak:** Arropa egokia saioetarako, higiene pertsonala saioen bukaeran.

Honako guzti hauek, konpetentzia ezberdinak ebaluatzen bideratuak egongo dira. Konpetentzia bat suspenditzeak, ez du ikasgaiaren suspentsoa ekarriko. Baina, konpetentzia bat suspenditua izanik, besteekin batuz besteko egin ahal izateko, suspenditutako konpetentzia gutxienez 4-ko kalifikazioa izan beharko du. Lortzen ez duen kasuan, konpetentzia horri dagozkion IE guztiak berregin beharko ditu berreskurapen sistemaren bitartez.

Gaiztatu ahal izateko lan guztiak entregatuak izango beharko ditu ezarritako datan

Konpetentzia oso eskasekin hasten diren ikasleei tresna/baliabide ezberdinak eskainiko zaizkie, minimoetara heldu daitezkeen. Gaitasun handiko ikasleei aldiz, beste baliabide batzuk emango zaizkie, haien garapen prozesuan aurrera joateko.

IE bakoitzaren arabera portzentaia alda daitezkeen arren, **honako egitura izango du kalifikazioak:**

- Eguneroko lanaren balorazioa/jarrera: %60
- Proba praktiko/teorikoak: %40

*Gaiztatzeko atal bakoitzean gutxienez 3 atera behar da batzuek egiteko, bestela ezin izango da gaiztatu.

*3 kanporaketekin (Ebaluaketa batean) ezin izango da gaiztatu.

*Higiene ohiturak: 3 hutsegite baino gehiago (Ebaluaketa batean) ezin izango da gaiztatu.

*3 jarrera desegoki (J) biltzen dituenak ikasturte guztian zehar, ezingo du jardueraren osagarri/txangoetan parte hartu

BERRESKURAPEN SISTEMA:

- I.E. bat eta bertako konpetentziak berreskueratzeko, egin gabe edo gaizki egindako jarduerak edo lanak irakasleak jarritako epeetan gainditu ez duten ikasleek egin beharko dituzte.
- Hutsegiteagatik edo klasea aurrera eramateko edota klase ondoren higienearen zainketarako beharrezkoa den materiala ez ekartzeagatik gainditzen ez duten ikasleek, klasean landutako gai buruzko azterketa edota lan bat egin behar izango dute.
- Kurtsoan zehar agindutako lanak egin beharko ditu. Atal praktiko eta teoriko bat izango du. Gainditzeko, 2 atalak gainditu egin beharko ditu. Atal teorikoa egin ahal izateko praktikoa gainditu beharko du.

EGOERA BEREZIETAKO KALIFIKAZIOA :

- Epe luzerako saioretara arrazoi justifikatu bategatik etortzen ez diren ikasleek (ospitalean edo etxean geratu egin behar direnak) lan bat egin beharko dute, garatu diren saio praktikoekin zerikusia izango dutenak.
- Lanak, bere ikaskideak momentu horretan lantzen ari diren edukiekin zerikusia izango du. Froga fisiko eta idatzia bere egoera berezira egokituta ere egin behar izango dute.

EXENZIOAK:

- Legeak ezartzen diren exentzioak kontutan izango dira.
- Ikaslegoaren behararen arabera curriculumaren egokitzapenak egingo dira.

Curriculumaren plangintza (sekuentziazioa)

Plangintza honetan agertzen diren ebaluazio irizpideak zuzenean lotuta daude EBALUAZIOA taulan zehazten diren konpetentzia espezifikoekin, eta hauek deskriptore operatiboen bidez IRTEERA PROFILA taulan zehazten diren funtsezko konpetentziekin (OHARRA?)

Ikas-egoera izenburua /UD	Ebaluazio-irizpideak (lorpen adierazleetan zehaztuak. LA-k ikas egoeretan zehaztuta daude)	Oinarrizko jakintzak	Ebaluazio tresnak (ebidentzia gisa erabiliko ditugun ikasleen ekoizpenak)
LEHEN HIRUHILEKOA			
NIRE GAITASUN FISIKOEN EGOERA	1.1;1.2;1.4; 1.5,1.6;1.7; 2.1;2.3;	<p>A multzoa. Egoera psikomotorrak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dominio honetako euskarri diren jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak (probak, estiloak, jokoaren oinarrizko arauak, espazioak, materialak...). - Gorputzaren erabilera kontzientea, jardueraren ezaugarrien, testuinguruaren eta espazio-parametroen arabera.* - Gorputzaren kontrola eta energia-gastuaren erregulazioa.* - Norberaren eta besteen jarduketan edo marken neurketa, irizpide objektiboekin. <p>G multzoa. Heziketa Fisikoaren zeharkako jakintzak</p> <p>Lehen mailako jakintzak: Gaitasun baldintzatuak: oinarrizko gaitasun fisikoaren garapena*. Ahalegin motak eta organismoan eta osasunean duten eragina.* Osasun mentala: mugen onarpena eta hobetzeko aukerak, egoera motorren aurrean. Jarduera fisikoa gozamen- eta katarsi-iturri gisa*. Proiektu motorren plangintza eta autorregulazioa: autoebaluazio- eta koebaluazio-mekanismoen ezarpena, lan-prozesuak bideratzeko.* Aniztasunarekiko errespetua.*</p>	<p><i>Lan teorikoa eta Aurkezpenak</i> <i>Gaitasun fisikoaren probak</i> <i>Fitxa.</i></p>

<p>JOKO JOLASAK</p>	<p>1.1, 1.2., 1.4, 1.6, 1.7 3.1,3.2, 3.3 5.1, 5.2, 5.3</p>	<p>B multzoa. Aurkaritza-egoera soziomotorrak</p> <p>Dominio honetako euskarri diren jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak (probak, estiloak, jokoaren oinarritzko arauak, espazioak, materialak...).</p> <p>Gorputzaren kontrola eta energia-gastuaren erregulazioa.*</p> <p>Jarduera fisikoetako eta kirol-jardueretako teknikarekin lotzen diren gaitasun motor espezifikoak: ohikoak diren erroreak identifikatu eta zuzentzeko estrategiak eta sakontzeko estrategiak.*</p> <p>Egoera motor indibidualetan nolabaiteko konplexutasuna duten zereginak efizientziaz ebazteko egokitzapen motorrak.*</p> <p>Koordinazio-, espazio-eta denbora-mekanismoei buruzko jarduera motorra egin aurretik, eta jarduerahori behar bezala ebazteari begira, erabakiak hartzeko jarraibideak.*</p> <p>Norberaren eta besteen jardunen edo marken neurketa, irizpide objektiboz.</p> <p>Muskuluetako minei aurre egiteko mugimenduak, jarrerak eta luzamenduak.</p> <p>-D multzoa. Aurkaritza-/kolaborazio-egoera soziomotorrak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dominio honetako berezko jarduera fisikoen, kirol-jardueren eta joko tradizionalen aniztasuna. - Eremu honetako berezko ekintza-printzipioak, hala nola defentsako eta erasoko algoritmoa praktikan jartzea, rol-trukea ... * - Erasoko eta defentsako aurretiazko estrategien mugaketa, taldekideen ezaugarrien arabera. * - Ebaluazio-tresnak eta erabakiak modu indibidualean edo kolektiboan hartzeko estrategia. - Norberaren, taldekideen eta aurkarien akzioak aztertzeko eta azaltzeko prozedurak. * 	<p>Rubika eta behaketa orriak</p>
---------------------	--	---	-----------------------------------

<p>SASKIBALOIA</p>	<p>2.1; 2.3; 4.1; 4.2; 5.1; 5.2</p>	<p>B multzoa. Aurkaritza egoera soziomotorra.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurkariaren seinaleak: asmoak, portaera, gorputz-orientazioa, desplazamenduak, espazioaren erabilera, indarrak eta ahuleziak. - Aurkariaren eremuan espazio libreak sortzeko estrategiak, betiere sakoneko, zabalerako, potentziako eta altuerako kolpeen bidez, kolpe-trukean nagusi izateko. - Mendeen egotetik nagusi izatera pasatzeko estrategiak eta bitartekoak. - Aurkaria gainditzeko funtsezko akzio-printzipioak. <p>C multzoa. Kooperazio egoera motorra.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dominio honen berezko praktika motorren aniztasuna. - Sekuentzien planifikazioa, jokabide motorrak aurreikusiz. - Rolen esleipenarekin, praktika-denboraren kudeaketarekin eta azken emaitzaren optimizazioarekin lotzen diren erabakiak hartzeko jarraibideak. - Harrera, gizarteratze, laguntza eta kooperazioko gizarte-trebetasunak. <p>D multzoa. Aurkaritza -/kolaborazio egoera soziomotorra.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dominio honetako berezko akzio-printzipioak, hala nola erasoko eta defentsako algoritmoak edo rolen aldaketa azkarra. - Aurkariaren ahulguneen eta indarguneen identifikazioa: aurkariaren asmoak, egiteko moduak, espazioaren erabilera, konpromiso-maila... - Erasoko eta defentsako aurretiazko estrategien mugaketa, taldekideen eta aurkako taldeko kideen ezaugarrien arabera. - Norberaren, taldekideen eta aurkariaren akzioa aztertzeko eta azaltzeko prozedurak. 	<p>Egunerokoa (behaketa orria). Errubrika.</p>
--------------------	---	---	--

BIGARREN HIRUHILEKOA

ARTXIKIROLA

2.1; 2.3; 4.1; 4.2; 5.1;
5.2

B multzoa. Aurkaritza egoera soziomotorra.

- Aurkariaren seinaleak: asmoak, portaera, gorputz-orientazioa, desplazamenduak, espazioaren erabilera, indarrak eta ahuleziak.
- Aurkariaren eremuan espazio libreak sortzeko estrategiak, betiere sakoneko, zabalerako, potentziako eta altuerako kolpeen bidez, kolpe-trukean nagusi izateko.
- Mendeen egotetik nagusi izatera pasatzeko estrategiak eta bitartekoak.
- Aurkaria gainditzeko funtsezko akzio-printzipioak.

C multzoa. Kooperazio egoera motorra.

- Dominio honen berezko praktika motorren aniztasuna.
- Sekuentzien planifikazioa, jokabide motorrak aurreikusiz.
- Rolan esleipenarekin, praktika-denboraren kudeaketarekin eta azken emaitzaren optimizazioarekin lotzen diren erabakiak hartzeko jarraibideak.
- Harrera, gizarteratze, laguntza eta kooperazioko gizarte-trebetasunak.

D multzoa. Aurkaritza -/kolaborazio egoera soziomotorra.

- Dominio honetako berezko akzio-printzipioak, hala nola erasoko eta defentsako algoritmoak edo rolen aldaketa azkarra.
- Aurkariaren ahulguneen eta indarguneen identifikazioa: aurkariaren asmoak, egiteko moduak, espazioaren erabilera, konpromiso-maila...
- Erasoko eta defentsako aurretiazko estrategien mugaketa, taldekideen eta aurkako taldeko kideen ezaugarrien arabera.
- Norberaren, taldekideen eta aurkariaren akzioa aztertzeko eta azaltzeko prozedurak

Eguenrokoa (behaketa orria).
Errubrika.

AEROBIC	7.1,7.2, 7,3	<p>C multzoa. Koorperazio-egoera soziomotorrak Dominio honen berezko praktika motorren aniztasuna. Akzio-printzipioak eta egoera kooperatiboetan arrakasta izateko giltzarriak.* Sekuentzien planifikazioa, jokabide motorrak aurreikusiz.* Rol en esleipenarekin, praktika-denboraren kudeaketarekin eta azken emaitzaren optimizazioarekin lotzen diren erabakiak hartzeko jarraibideak.* Harrera, gizarteratze, laguntza eta kooperazioko gizarte-trebetasunak.*</p> <p>G multzoa. Heziketa Fisikoaren zeharkako jakintzak Proiektu motorren plangintza eta autorregulazioa.*</p>	Errubika Behaketa
EUSKAL DANTZAK	7.1, 7.2, 7.3	<p>C multzoa. Koorperazio-egoera soziomotorrak Dominio honen berezko praktika motorren aniztasuna. Akzio-printzipioak eta egoera kooperatiboetan arrakasta izateko giltzarriak.* Sekuentzien planifikazioa, jokabide motorrak aurreikusiz.* Rol en esleipenarekin, praktika-denboraren kudeaketarekin eta azken emaitzaren optimizazioarekin lotzen diren erabakiak hartzeko jarraibideak.* Harrera, gizarteratze, laguntza eta kooperazioko gizarte-trebetasunak.*</p> <p>G multzoa. Heziketa Fisikoaren zeharkako jakintzak Proiektu motorren plangintza eta autorregulazioa.*</p>	Errubika. Behaketa. koebaluazioa.
HIRUGARREN HIRUHILEKOA			
Dachball	1.1, 1.6, 1.7 5.1, 5.2, 5.3	<p>D multzoa. Aurkaritza-/kolaborazio-egoera soziomotorrak - Dominio honetako berezko jarduera fisikoen, kirol-jardueren eta joko tradizionalen aniztasuna. - Dominio honetako berezko akzio-printzipioak, hala nola erasoko eta defentsako algoritmoak edo rolen aldaketa azkarra. *</p>	Errubika kontrol orria

		<ul style="list-style-type: none"> - Aurkariaren ahulguneen eta indarguneen identifikazioa: aurkariaren asmoak, egiteko moduak, espazioaren erabilera, konpromiso-maila... - Erasoko eta defentsako aurretiazko estrategien mugaketa, taldekideen eta aurkako taldeko kideen ezaugarrien arabera. * - Talde-kiroletan emandako araudiak eta jokoaren arauak (jokoaren hasiera, jokalarien eskubideak eta betebeharrak, puntuatzeko aukerak, arrakasta edo porrota dakarten elementuak...). - Ebaluatzeko eta erabakiak modu indibidualean edo kolektiboan hartzeko tresnak: behaketa gurutzatuak, informatika-tresnak... - Norberaren, taldekideen eta aurkariaren akzioa aztertze eta azaltzeko prozedurak. * - Aurkaritza kolektiboko jardunen balioak (borrokarako grina, enfrentamendua, zintzotasuna, elkartasuna, segurtasuna, legezkoitasuna). * 	
ERRUGBI TAG	1.1, 5.1,5.2, 5.3	<p>B multzoa. Aurkaritza-egoera soziomotorrak</p> <p>Dominio honetako berezko jardura fisikoen, kirol-jardueren eta joko tradizionalen aniztasuna.</p> <p>Aurkaria gainditzeko funtsezko akzio-printzipioak.*</p> <p>Aurkaritza-jardueren estereotipo motorrak.*</p> <p>Mendean egotetik nagusi izatera pasatzeko estrategiak eta bitartekoak.*</p> <p>Aurkariaren eremuan espazio libreak sortzeko estrategiak, betiere sakoneko, zabalerako, potentziako eta altuerako kolpeen bidez, kolpe-trukean nagusi izateko.*</p> <p>Aurkariaren seinaleak: asmoak, portaera, gorputz-orientazioa, desplazamenduak, espazioaren erabilera, indarrak eta ahuleziak... *</p>	Behaketa taulak Errubikak Lan/ariketa idatziak
ORIENTAZIOA	1.4; 1.5; 1.6; 1.7; 6.1; 6.2; 6.3	<p>A multzoa. Egoera soziomotorrak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dominio honetako euskarri diren jardura fisikoak eta kirol-jarduerak (probak, estiloak, jokoaren oinarritzko arauak, espazioak, materialak...). - Koordinazio-, espazio- eta denbora-mekanismoei buruzko jardura motorra egin aurretik, eta jardura hori behar bezala ebazteari begira, erabakiak hartzeko jarraibideak. 	Egunerokoa (behaketa orria). Errubrika. Azterketa.

		<p>C multzoa. Kooperazio egoera soziomotorra.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dominio honen berezko praktika motorren aniztasuna. - Rolen esleipenarekin, praktika-denboraren kudeaketarekin eta azken emaitzaren optimizazioarekin lotzen diren erabakiak hartzeko jarraibideak. <p>E multzoa. Ziurgabetsuna duten inguruneetako egoera motorrak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Landa- eta hiri-inguruneetako jarduera fisikoak. - Ingurune naturalean, norberaren eta gainerakoen arriskuaren kudeaketa. Segurtasun-neurri kolektiboak. - Jarduera horietako berezko materiala eta ekipamendua, segurtasuneko barne: ezagutza teknikoak eta mantentze-lanetako ezagutzak. - Puntu kardinalak, ipar magnetikoa, orientazioak, planoak, mapak eta iparrorratza. 	
<i>Ikas egoeretatik kanpo emandako atazak</i>			
ESKI IRTEERA	1.1, 4.1, 4.2 6.1,6,2	<p>E multzoa. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak.</p> <p>Natura-eta hiri-inguruneetako jarduera fisikoak. Ingurunenaturalean egindako desplazamendu arrazoitua eta hausnartua, informazio eta erreferentziak hartuz (plano batean markatutako ibilbide bati jarraitzeko).*</p> <p>Energiaren kudeaketa eta erregulazioa, jarduera ekonomiaz eta eraginkortasunez gauzatzeko.*</p> <p>Ingurunenaturaleko praktika fisikoetakoeta kirol-praktiketako arriskua: segurtasun-neurriak ondorio larriak izan ditzaketen jardueretan.*</p>	

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, etab.

HELBURUAK, ESTRATEGIAK ETA METODOAK *(aspektu hauetako batzuk aukeratu eta NOLA garatuko diren zehaztu)*

Metodologiari dagokionez, programazio hau ikasle guztiek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean lortu behar duten irteera profilean zehazten diren funtsezko kompetentzien eta irakasgaiko kompetentzia espezifikoaren garapena sustatzen duen metodologian dago oinarrituta eta ikas egoera eta jardun kompetentzietan artikulatzen da. Modu honetan, ikasleak beren ikaskuntza prozesuaren eragile aktiboak izatea ziurtatzen da. Ikasleen antolaketa eta taldekatzeari dagokionez, modu heterogeneo baten bitartez egingo da. Ikasleen gaitasunak kontuan hartuta talde ezberdinak egingo dira zeinetan gaitasun handieneko ikasleak gaitasun ertain eta baxuko ikasleekin elkartuak izango diren eta elkarri laguntza emanez guztien kompetentziak garatzen ahaleginduko diren. Metodologia hau modu ezberdinetan probestuko da:

1. Talde bakoitzeko ikasle gaituenari irakatsi, eta hori bere taldeko irakasle/gidari bihurtu.
2. Ikasle gaituenari taldeko koordinatzaile eta dinamizatzailearen ardura eman, gaitasun ertainekoei laguntzeko.

Bestalde, antolatzen diren taldeetan aniztasuna mantenduko da. Osatzen diren taldeetan, genero berdintasuna (neska, zein mutil kantitate berdina) mantentzen saiatuko da, talde bakoitzaren errealitatearen arabera moldatu beharko delarik honakoa. Bestalde, egon daitezkeen ezberdintasunak (jatorri atzerriarra, aniztasun funtzionala..) banatzen saiatuko dira taldeetan. Modu honetan genero ikuspegi eta kulturartekotasunaz gain, ikasle ezberdinen arteko bizikidetzak eta errespetua sustatzea bilatuko da. Hala ere, egoera eta helburu bakoitzaren arabera taldekatze hauek aldatu egin daitezke.

Jarduera edota eginizunei erreparatzen badiegu, honakoak ikasle guztientzako aproposak izango dira, aldaera edo egokitzapenaren bitartez bakoitza bere kompetentzietan trebatzeko eta ikasgaiarekin bilatzen diren helburuak lortzeko. Hori lortzeko planteatzen diren ekintzak malguak izango dira beharren arabera taldearen errealitatearekin bat egiteko, eta minimoetan lan egiten duten ikasleek zein gaitasun handiko ikasleek hobetu eta garatzen jarraitu ahal izateko.

Arazo egoerak planteatuko dira, kompetentzia ezberdinen lanketa baitan izango dutenak, eta zeinen funtsa hasieratik bukaerarako eginkizun bat izango dena, ez ariketa edo jarduera hutsa. Arazo egoeren planteatzeko ondorengoak hartuko dira kontuan:

- testuinguru hurbil eta aktualetan oinarritu.
- beste ikasgaietan landutako edukien beharra izango dute.
- ikasleen motibazio eta interesa piztuko dute.
- bukaerako emaitza edo produktua errealak izango da, erabilgarria, ondorioak izango ditu.
- produktuaren hartzaila ez da bakarrik ikasle/taldea izango.

Hizkuntzari dagokionez, euskara izango da erabiliko den hizkuntza nagusia. Hala eta guztiz ere, ikastetxeko errealitatea kontuan izanik (hizkuntza ez dakiten ikasle berriak), talderen batean gazteleraz errefortzatuko dira azalpenak. Lehenik, euskaraz gauzatuko dira azalpenak eta ondoren ikasle hauek ulertu dutela eta errefortzu moduan, gazteleraz errepikatuko dira. Era berean, ikasle arduradun bat izendatuko da saio bakoitzean, euskara ulertzen ez duen ikasle honetaz arduratuko dena eta behar izan ezkerreko laguntza emango diona.

Bestalde, saioetan hainbat estrategia eta estilo ezberdin erabiliko dira. Estrategiei dagokionez honakoak izan daitezke:

- Estrategia instruktiboak, non erabaki gehienak irakasleak hartzen dituen.
- Estrategia parte-hartzaileak, ikasleek beren ikaskuntzan parte hartzea sustatzen dutenak (jarraipenean eta ebaluazioan esku hartuz).
- Estrategia emantzipatzaileak, non ikasleek edukiak modu autonomoan erabiltzen dituzten, eta beren ikaskuntza-prozesua eta gaitasunen garapena beren gain hartzeko gai diren.

Estiloen kasuan aldiz, honakoak erabiliko dira saioak aurrera eramateko:

- Aginte zuzena: Bertan, ikasleak irakaslearen jarraibide guztiak betetzera, betetzera eta betetzera mugatzen dira.
- Atazen esleipena: Irakasleak planifikatu eta proposatu egingo du burutu beharreko ataza, eta ikasleek hasiera, amaiera eta erritmoa erabakiko dituzte.
- Elkarrekintzazko irakaskuntza: bikotekako lan bat eskatzen du, non bikotekide batek (behatzaileak) informazioa ematen dion beste bati (exekutatzailea). Koebaluazioa eta lankidetzak bultzatzen da honen bitartez.
- Talde txikietako irakaskuntza: 3 edo 4 ikasleko taldeak osatzen datza. Horietako bat exekutatzailea da, bat edo bi behatzaileak eta beste bat ohar-egilea.
- Aurkikuntza gidatua: ikasleak planteatutako arazoari irtenbide bat emango dio (prozesu konbergentea), irakasleak honakoa gidaturik.
- Arazoen erresoluzioa: zeregin mugatu bat planteatuko zaio ikasleari, bere kabuz irtenbide desberdinetako bat (prozesu dibergentea) topatzeko.

Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) (hautatu/moldatu erabiliko diren IDU estrategiak)

Jarduerak ikasleen ezaugarri psikoebolutiboak eta premiei erantzuneko diete, ikastetxeko espazio erabilgarrietan egingo dira, eskura dauden baliabide materialak aprobetxatuz, eta modu egokian antolatuko dira saioetan. Aipatzekoa da, halaber, jarduerak:

- Ikaskuntzek ikasleen bizitza errealekin duten lotura ziurtatuko dute.
- Ikasle guztiek aktiboki esku hartzeko eta aurrera egiteko aukera izango dute.
- Sozializazioa, parte-hartzea eta lankidetzak bultzatuko dituzte.
- Sekuentzia progresiboa izango dute, sinpletik konplexura.
- Oinarrizko gaitasunak garatuko dituzte.
- Askotariko baliabideak erabiliko dituzte.
- Informazioa hainbat modutan jarriko da eskuragai: audioak, bideoak, infografiak, aurkezpenak, testuak...
- Ulermena maximizatzeko ereduak, adibideak eta jarraibideak erraztuko dira.

ESPAZIOEN, MATERIALEN ETA BALIABIDEEN ERABILERA

Saioen eta espazioaren antolamenduari dagokionez, honela antolatuko dira ikasturtean zehar. Saioak ordu bat eta 50 minutukoak izango dira denetara. Saioak teorikoak, praktikoak edo teoriko-praktikoak izan daitezke. Teorikoak gelan bertan izango dira proiektore eta chroombookekin. Praktikoak aldiz, patioko kirol eremuetan, eskolako gimnasioan edota baita herriko polikiroldegiko eremuan izan daitezke (Palatu kiroldegian). Saio praktikoetan, saioa hiru fase ezberdinetan antolatuko da. Lehen fasea, sarrera moduko bat izango da, bertan ikasleak zirkuluan bilduko dira eta egingo diren jarduerak aurreratuko dira bertan. Ondoren, saioaren atal nagusia etorriko da, bertan ikasleek jarduerak nagusiak burutuko dituzte. Azkenik, bukaerako fasea etorriko litzateke, bertan saioaren inguruko hausnarketa txiki bat, lasaitze fisikoa eta azken agurra egingo lirateke. Honen ostean, higienerako ordua izango da. Ikasleek 15'-ko tarteak izango dute saio praktiko bakoitzaren amaieran dutxatu eta arropaz aldatzeko klasera igo aurretik.

Erabiliko diren baliabideei dagokienez, burutuko diren jarduerak eta saio gehienak praktikoak izango diren arren, IKT ezberdinak erabiliko dira baliabide didaktiko moduan. Honela erabiliko ditugu hauetako bakoitzak:

- Ikasleen arteko komunikazioarako eta ikasle eta irakaslearen arteko komunikaziorako ere Google Drive, Classroom eta emaila bultzatuko da.
- Unitate didaktiko guztiak oinarri teknologiko batekin lagunduko dira. Classroom plataformaren bitartez eduki teorikoak, bideoak, argazkiak eta bestelakoak helaraziko zaizkie ikasleei, eta foroen zein jarduera kooperatiboen bitartez eduki desberdinak sortuko dituzte. Baita test azterketa ezberdinak egongo dira Classroom-en bitartez.
- Classroom plataforma erabiliko da, oro har, informazioa zabaltzeko eta eta lanak jasotzeko
- Internet erabiliko da informazio iturri gisa.
- Drive-ko erreminta ezberdinak txostenak eta aurkezpenak egiteko.
- Aplikazio ezberdinak erabili beharko dituzte jarduera batzuk aurrera eramateko (Canva, Munzee... etab).

OHARRAK

Programazioa moldatua izan daiteke, egoera meteorologiko, espazio komunaren okupazioagatik, espazio propioen egoeragatik eta kiroldegia okupazioagatik.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [errefortzu- eta zabaltze-neurriak, antolamendu- eta metodologia-egokitzapenak, emaitzen azterketa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, berreskuratze-sistema...].

EBALUAZIOAREN ADIERAZLEAK	Ikasturtean zehar (ebaluazio jarraitua)	Ikasturte amaieran (amaierako ebaluazioa)
1) Ikasturteko ebaluazio emaitzak, arloetan edo eremuetan	Emaitzak nahi bezalakoak ez badira, honako doikuntza edo egokitzapen hauek proposatzen dira: - ... - ... - ...	<i>Hurrengo ikasturteko programazio didaktikoa hobetzeko proposamenak:</i>

EBALUAZIOAREN ADIERAZLEAK	Ikasturtean zehar (ebaluazio jarraitua)	IIkasturte amaieran (amaierako ebaluazioa)
4) "Sekuentziazioa"	Sekuentziazioa momenturen batean arrazoiren bategatik ezegokia balitz, honako egokitzapen hauek proposatzen dira: - ... - ... - ...	<i>Hurrengo ikasturteko programazio didaktikoa hobetzeko proposamenak:</i>

Sinadura (arlo / eremu horretako irakasleak)